

Eusko Jaurlaritzaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua eta azaroaren 6ko 30/2020 dekretua direla eta Zornotza Aretoak hurrengo neurriak hartuko ditu:

## **SARRERAK ITZULTZEA**

36/2020 Dekretuak ezarritako mugikortasun murrizketek eragindako pertsona guztiei, eta 30/2020 ezarritako ordutegi aldaketak direla eta ikuskizunetara joateko aukerarik ez duten pertsonen zenbatekoa honela itzuliko zaie (dekretuak mantentzen diren bitartean programatutako ikuskizunetarako)

- **Aretoak leihatilan erositako sarrerak:**

Zenbatekoa leihatilan itzuliko da, eskudirutan. Mugikortasuna mugatuta dagoenez, dirua itzultzeko bide hori epemugarik gabe egongo da zabalik, kaltetuek, ahal duten unean, kudeaketak lekuan bertan egin ahal izan ditzaten.

- **On-line erositako sarrerak:**

Itzulketa ez da automatikoa izango. Interesdunek posta elektronikoko mezu bat bidali beharko dute helbide honetara: [zelaieta@amorebieta.eus](mailto:zelaieta@amorebieta.eus), gaian “Zuzenekoak sarrerak itzultzea” adieraziz eta, mezuan atxikituta link honetako <https://aplikazioak.amorebieta-etxano.eus/zerbikat/48340/eu/276> eskaria beteta bidaliko da, itzulketaren arrazoa agertuz, eta horrekin batera itzulketa egiteko kontu korrontearen titulartasun agiria eta sarren erosketaren ordainagiria edo sarren pdfa ere gehituko da.

Abendutik aurrera programatuta dauden ikuskizunei dagokienez, oraingo ez da itzulketarik egingo, baina osasun agintaritzaren agindu eta gomendioen bilakaera ikusi ahala, gure ikusleak jakinaren gainean jarriko ditugu.

Amorebieta-Etxanoko udalak lehenbailehen kudeatuko du itzulketa. Pazientzia eskatzen dugu itzulketak kudeatzeko behar den denborarengatik, eta barkamena eskatzen dizuegu sortutako eragozpenengatik.

## **ORDUTEGI ALDAKETA**

Ikuskizunen eta zinemaren ordutegia egoera berriari egokituko da (19:00 arte eszenikoetan eta musikan, 19:00 zineman eta 12:00 umeentzako zineman, goizeko emanaldiak dauden moduan mantenduko dira eta 18:00etako familien ikuskizunen kasuan).

Horrela azarorako zuzenekoaren ordutegiak hurrengoak dira:

Azaroak 6 ESPACIO DISPONIBLE Perigallo teatro 20:15

Azaroak 14 MUSIKARIUM Oihan Vega 18:00

Azaroak 19 EZ DOK ERO Tartean 19:00

Azaroak 20 GAUEKOAK Kukai 19:00

Azaroak 21 MUNDU BAT MOTXILAN Alex Txikon, Unai Ormaetxea 18:00

Azaroak 27 YO LA PEOR DEL MUNDO Vaiven 19:00